

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Angeles Saenz Rekalde

*Donostia,
Gipuzkoa
(1936)*

Aurkibidea



Biografia



Donostiako Parte Zaharrean jaio zen, San Juan kalean. Aita donostiarra zuen; ama, berriz, Uitzikoa (Nafarroa). Sei urterekin Elizaranen hasi zen eskolan, mojetan. Magisteritza ikasi zuen, eta baita oposizioak atera ere, “maestra nacional” izateko. Etxeko hizkuntza erdara zuen, baina euskara ikasten aritu zen, hurrekin erabiltzeko. Izan ere, Itsasondoko Urkia auzoan lau urte egin zituen Maria Angelesek, giro erabat euskaldunean; argirik eta urik gabe, astoan igotzen zen hara. Gero, Usurbilen egon zen hainbat urtean. Berak dioenez, gutxi ziren maistra nazional euskaldunak.

Zintak

DON-025

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-01
- **Iraupena:** 82 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Orix bere amonarengana joaten zen

- **Erref:** DON-025/002
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:01:44. **Bukatu:** 00:02:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Aita donostiarra zuen eta ama Uitzikoa. Amonak euskara aberatsa ei zuen, eta Orix hitzak galdetzera joaten omen zitzaion.

2. Parte Zaharra nolakoa zen

- **Erref:** DON-025/005
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:03:52. **Bukatu:** 00:06:33

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa

Laburpena:

San Juan kalean, denda zuten etxe azpian. Ardo biltegia ere bazen, eta gero taberna jarri zuten. Tranbia zegoen bulebarrean. Astotokia San Lorentzo kalean zegoen, eta Sarriegin aduana moduko bat.

3. Bost ahizpek izan zuten ikasteko aukera

- **Erref:** DON-025/007
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:08:35. **Bukatu:** 00:10:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

<p>Anaiek La Sallen ikasi zuten, fraideetan. Neskek ez zuten ikasten garai hartan. Bost ahizpek izan zuten ikasteko aukera, amaren erabakiz.</p>

4. Elbira Zipitriaren ikastola

- **Erref:** DON-025/013
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:16:21. **Bukatu:** 00:17:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Aita euskaraz ikasten saiatu zen berarekin. Anaia eta ahizpa zaharrena, berriz, Elbira Zipitriarengana joan ziren. Ikastola zuen hark Parte Zaharrean.

5. Itsasondon maistra I

- **Erref:** DON-025/015
- **Iraupena:** 0:04:39. **Hasi:** 00:18:07. **Bukatu:** 00:22:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Itsasondoko Urkia auzoan egokitu zitzaion maistra lana. Oinez edo astoz igotzen zen. Umeek ez zuten erdara ulertzen. Eta bera euskara ikasten hasi zen.

6. Lau urtetik gorako hurrekin

- **Erref:** DON-025/017
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:23:46. **Bukatu:** 00:24:21

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Hasieran 6 urtetik aurrerako umeak zituen, baina gero laukoak ere joaten hasi ziren.

7. Euskara ikasten

- **Erref:** DON-025/024
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:37:39. **Bukatu:** 00:38:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara

Laburpena:

Donostian gutxi hitz egiten zuen euskaraz. Maistra hasi zenean ikastaroak egiten hasi zen. Aitonak esaten ziona.

8. Euskara ikasteko gogoa

- **Erref:** DON-025/027
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:40:25. **Bukatu:** 00:41:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara

Laburpena:

Euskaraz irakurtzen zuen. Ahizpa Amale Arzelus andereñoarengana joan zen euskara ikastera.

9. Itsasondon maistra II

- **Erref:** DON-025/030
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:43:32. **Bukatu:** 00:45:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Lau urte egin zituen Itsasondon maistra. Ur gabe, berogailu gabe eta argi gutxirekin. Etxekoandreak asko laguntzen zion. Irratia eraman zuen hara, eta denak harrituta.

10. Murumendin, artzainarekin berriketan

- **Erref:** DON-025/032
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:46:44. **Bukatu:** 00:48:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza

Laburpena:

Murumendira joaten zen paseatzen, aspertu egiten zelako bestela. Behin artzain batekin egin zuen topo han. Harekin zertaz hitz egin zuen kontatzen du.

11. Itsasondon maistra III

- **Erref:** DON-025/034
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:49:30. **Bukatu:** 00:52:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Iturrira joaten ziren ur bila. Ekonomia zegoen. Donostiara joaten zenean, denbora mordoa pasatzen zuen baineran sartuta. Asteburuetan inguruko herrietara joaten ziren dantzara; Zarautzera ere bai.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-09-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com